EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## AZAROAREN 25A
## EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO EGUNA

Zuzendari agurgarri hori:

Jakina denez, 25a Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko eguna da. Mundu guztian eta adin guztietako emakumeek oraindik ere jasaten duten sexismoaren, desberdintasunaren eta indarkeriaren aurka borroka egitearen garrantzia azpimarratzeko eguna da.

Ikastetxeak, hezkuntza-agente gisa, erantzukizun saihestezina dauka indarkeria hori garaiz igartzeko eta kasu guztietan behar bezala erantzuteko.

Lan hori ez da erraza, indarkeria mota horrek era eta adierazpen asko baititu jendartean eta geletan. Adierazpen horiek oso normalizatuta ditugu, eta ondorioz, beharrezkoa da identifikatzen ikastea aurre egin ahal izateko-.

Data horrek gogorarazten digu garrantzitsua dela zuen ikastetxeetan, komunitatearekin lankidetzan eta ikasturtean zehar, eta sistematikoki, ikasleak sentsibilizatzeko eta prestatzeko ekimenak egitea, ikastetxeko espazio guztietan matxismo- eta indarkeria-egoerak detektatzeko. Eta azkenik, horiek detektatu ondoren esku-hartze zuzena egiteko Indarkeria matxistaren biktima diren haur, nerabe eta emakumeen arreta emateko ikastetxeentzako jarraibideak ditugu, ikastetxeei esku-hartze hori nola egin behar den laguntzeko.

Euskal hezkuntza-sistemarako Hezkidetzaren II. Planak, berdintasunaren eta tratu onaren bidean, hezkidetzaren zortzi zutabeak formulatzen ditu, eta zortzigarren zutabea "emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta indarkeria-kasuetan esku hartzea" da.

Hezkidetzagunean, aipatutako zutabea lantzeko material didaktikoak aurki ditzakezue hezkuntza etapa desberdinetan lantzeko.

Testuinguru horretan, jakinarazten dizuet urtarrilean prestakuntza-jardunaldi bat egingo dela funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietako irakasleentzat, pornografiaren erabilerari eta erabilera horrek nerabeengan dituen ondorioei buruz, bai eta egoera horri aurre egiteko estrategiei buruz ere. Etorriko zaretelakoan,

Har ezazue nire agur beroena

## 25 DE NOVIEMBRE
## DÍA INTERNACIONAL PARA LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

Estimada directora/director:

Como es sabido, el 25 de noviembre es el Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres. Es un día para subrayar la importancia de la lucha contra el sexismo, la desigualdad y la violencia que todavía sufren mujeres de todas las edades y en todo el mundo.

El centro escolar, como agente educativo, tiene una responsabilidad ineludible en la detección precoz de la violencia machista contra las mujeres y en su adecuada respuesta en todos los casos.

Esta labor no es sencilla, ya que este tipo de violencia tiene diversas formas y manifestaciones en la sociedad y en las aulas. Dichas manifestaciones las tenemos tan normalizadas que es necesario aprender a identificarlas para poder combatirlas.

Esta fecha nos recuerda que es importante que, en vuestros centros educativos, en colaboración con la comunidad y a lo largo del curso, y con carácter sistemático, llevéis a cabo iniciativas dirigidas a sensibilizar y formar al alumnado para detectar las situaciones de machismo y violencia en los diferentes espacios del centro. Y, por último, para realizar una intervención directa tras su detección, los centros cuentan con el documento Pautas para los centros educativos para la atención a niñas, niños, adolescentes y mujeres víctimas de la violencia machista, como guía de intervención ante esas situaciones.

*El II Plan de Coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino de la igualdad y el buen trato* en el que se formulan los ocho pilares de la coeducación, identifica como el octavo pilar la "prevención de la violencia contra las mujeres e intervención en casos de violencia".

En el espacio web Hezkidetzagunea, podéis encontrar materiales didácticos de utilidad para trabajar el mencionado pilar en las distintas etapas educativas.

En este contexto, aprovecho para informaros de que en el mes de enero se realizará una jornada de formación, dirigida al profesorado de todos los centros sostenidos con fondos públicos, sobre el uso de la pornografía y las consecuencias de dicho uso en adolescentes, así como estrategias para abordar esta situación. Esperando vuestra asistencia,

Recibid un cordial saludo

Vitoria-Gasteizen, 2023ko azaroaren 24an
En Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 2023

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO — HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Izpta./Fdo. Jokin Bildarratz Sorron
Hezkuntza Sailburua/ Consejero de Educación